

# 5 Lan-tresnak

Ikt-ak egoki erabiltzeko orientazioa:

## Kokapena, erabilera eta denbora

- Ordenagailuak, mugikorrak, tabletak, etab. kokatzeko, erabiltzeko eta denboran mugatzeko arauak jarri. Adibidez: ekintzetan ez erabiltzea / egun batzuetan bakarrik / asteburuetan / egin beharrekoak amaitu eta gero.
- Interneten sartzeko ordutegi bat eta denbora-tarte bat erabaki. Wifi-a denbora batez bakarrik ireki.
- Nerabeekin egin, partaidetzazko prozesu adostu bat izan dadin.
- Ez da osasungarria libre duten denbora guztia konektatuta egotea.
- Bestelako jarduera-mota batzuk ere garrantzitsuak direla jakinarazi behar zaie.
- Zuzenean lagunekin eta kideekin harremanak izatera animatu.
- Programazioaren barruan, IKTak plangintza baten arabera erabili: Internet eguna, Wii arratsaldez, aplikazioak ezagutzeko tailerra ...



## Internet nerabeekin partekatu

- Nerabeei azaldu balioak eta printzipioak harreman zuzenetako berberak direla.
- Argi izan behar dute IKTen erabileran zuzena zer den eta zer ez.
- Ez erabili ordenagailua edo mugikorra sari moduan. Era horretako erabakietatik kanpo geratu behar dute.
- Hezitzaile garenez, ezin gaitu makina batek ordeztu. Gure lana egiteko orduan, oso garrantzitsuak dira emozioak eta harremanak.
- Interneten dena ez da fidagarria. Albisteak, informazioa, dokumentuak eta abar egiaztatu egin behar dira.

## Errespetua eta hezkuntza

- Si conocen o Une egokiak baliatu, Interneten zer begiratu duten galdetzeko. Naturaltasunez hitz egin, beste edozein gairi buruz bezala.
- Une egokiak baliatu, nerabeen espiritu kritikoa sustatzeko.
- Animatu kontatzera zerbaitek deseroso sentiarazten baditu, zerbait iraingarria edo desatsegina iruditzen bazaie.
- Nerabeekin hitz egin Interneten bete beharreko portaera-arauei buruz, erantzukizunez jokatu ahal izan dezaten.
- Haien adinari dagokion hizkuntza eta eredia erabili.

### Konfidentzialtasuna eta identitatearen babesa

- Informazio pertsonalik inoiz ez ematen irakatsi (benetako izena, helbidea, telefono-zenbakia, ikastetxea...), eta, zalantzarik izanez gero, kontsulta dezatela.
- Ordenagailuetan, edukiak aukeratzeko elementuak txertatu, eduki arriskutsu jakin batzuetara iristea saihesteko.



### Salaketa


- Jakinarazi behar zaie guregana jo dezaketela, legez kontrako ekintza bat edo zantzuren bat iristen bazaie. Hala, gertatzen ari zaiena jakingo dugu.
- Azpimarratu zein arriskutsua den leku pribatu batean “ziberlagun” batekin elkartzea.

### Legez kanpoko behera kargatzeak

- Azaldu egin behar zaie besteen lanaren kopiak egitea lapurtzearen parekoa dela.
- Internetek ez du esan nahi “harrapatzen dudan guztia nirea da”.

### Komunikazioa beste eragile batzuekin

- Garrantzitsua da, gai honi dagokionez, gurasoekin, ikastetxearekin eta bestelako erakunde batzuekin loturak izatea.



\* Nerabeekin lan-taldean landu daiteke.